

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

248/2026 Foru Agindua, abuztuaren 6koa. Abiaraztea Legutioko udalerrian dagoen eta Urrunagako herriarena den onura publikoko “Lugarrea-Atxausi-Mendieta” izeneko mendiaren mugaketa eta mugarritzea egiteko prozedura, eta hasiera batean iraungitzat jotzen den prozedurako egintzak eta izapideak kontserbatu beharra xedatzea

Uztailaren 29ko 239/2026 Foru Aginduaren bidez, iraungitzat jo zen Legutioko udalerrian dagoen eta Urrunagako herriarena den onura publikoko “Lugarrea-Atxausi-Mendieta” izeneko mendiaren mugaketa eta mugarritze prozedura, bat etorritik Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25. eta 95. artikuluetan eta Mendiei buruzko martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauaren 28. artikuluan xedatutakoarekin.

Ondorioz, 2026ko abuztuaren 3an, Mendi Zerbitzuak Legutioko udalerrian dagoen eta Urrunagako herriarena den onura publikoko “Lugarrea-Atxausi-Mendieta” izeneko mendiaren mugaketa eta mugarritze prozedurari hasiera ematea proposatu du, 220/26 espediente zenbakiarekin.

Nahitaezko txostenak aztertu dira, eta kontuan hartuta zer xedatzen duten Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25. eta 95. artikuluek eta Mendiei buruzko martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauaren kasuan kasuko artikuluek, eta Arabako Foru Aldundiaren sailak 2023-2027 legegintzaldirako zehazten dituen Diputatu Nagusiaren ekainaren 30eko 152/2023 Foru Dekretuak —Diputatu Nagusiaren ekainaren 28ko 78/2024 Foru Dekretuaren bidez aldatua— ematen dizkidan eskumenez baliatuz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Hasiera ematea, 220/26 espediente zenbakiarekin bideratuta, Legutioko udalerrian dagoen eta Urrunagako herriarena den onura publikoko “Lugarrea-Atxausi-Mendieta” izeneko mendiaren mugaketa eta mugarritze prozedurari.

Bigarrena. Agintzea iraungitako prozedurako egintza independenteek ondorioak izan ditzatela eta egintza horiek gehi daitezela, besteak beste, interesdunek eduki ditzaketan eskubideak egiaztatzeko aurkeztutako dokumentazioa, neurketen aktak, mugaketako plano topografikoak.

Hirugarrena. Adieraztea mugaketa egoeran dagoela Legutioko udalerrian dagoen eta Urrunagako herriarena den “Lugarrea-Atxausi-Mendieta” izeneko mendi publikoa. Mugaketa horrek ez du inolako muga berezirik ezartzen.

Laugarrena. Mendiei buruzko martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauan eta otsailaren 22ko 485/1962 Dekretuaren bidez onetsitako Mendiei buruzko Arautegiaren 120. eta 121. artikuluetan xedatutakoaren arabera, interesdunei jakinaraztea espediente Urrunagako Administrazio Batzarraren bulegoetan (Urdeta kalea 4, 01170 Urrunaga) egongo dela, iragarki hau argitaratu eta hurrengo hamabost egun baliodunetan, aztertu ahal izateko. Iragarki hau argitaratu eta hurrengo hogeita hamar egun baliodunetan zuzenbidearekin bat datozen erreklamazioak aurkeztu ahal izango zaizkio Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzuari, bai telematikoki, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez edo beste administrazio publiko baten erregistro elektronikoan, bai Arabako Foru Aldundiko Erregistro Orokorrean (Probintzia plaza 5, 01001 Vitoria-Gasteiz), bai Legutioko Udalaren bulegoetan edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan ezarritako gainerako erregistroetatik edozeinetan. Mugarritze lanen aurka erreklamazioa aurkezteko, beharrezkoa da mugarritze lanetan bertan egon izana norbera edo norberak izendatutako ordezkari bat.

Jabetzari buruzko erreklamazioei dagokienez, ohartarazten da erreklamazioan berariaz aipatu behar dela administrazio bidea amaitzeko asmoz aurkezten direla, aldez aurreko izapide gisa, gero arlo zibileko epaitegietara jotzeko.

Bosgarrena. Otsailaren 15eko 4/2023 Foru Arauak gehitutako Mendiei buruzko martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauaren 28. artikulua 6. apartatua ezarritakoaren arabera, mugaketa prozedura ebazteko gehieneko epea 24 hilabetekoa da, eta epe hori igarotzen bada dagokion ebazpena eman eta jakinarazi gabe, iraungi egingo da eta jarduketak artxibatzea erabakiko da.

Seigarrena. Ebazpen hau prozedurako interesdun guztiei jakinaraztea eta ALHAOn argitaratzea.

Zazpigarrena. Administrazio bidea amaitzen duen foru agindu honen aurka berraztertzeke errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio, nahi izanez gero, ebazpena eman zuen organoari berari, hilabeteko epean, jakinarazi ondorengo egunetik aurrera, edo, bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da Administrazioarekiko Auzietarako Vitoria-Gasteizko Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazi ondorengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko abuztuaren 6a

Nekazaritza Saileko foru diputatua

NOEMI AGUIRRE QUINTANA

Nekazaritza zuzendaria

DAVID FERNANDEZ SARABIA